

BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA LAN HARREMANETAN, GENEROA DELA MEDIO

«*Berdintasuna eta diskriminaziorik eza lan harremanetan, generoa dela medio*» gaiari buruzko monografiko honen xedea gizon eta emakumeen arteko tratu-desberdintasunen laneko erregulazio juridikoa zenbait ikuspegitatik lantzea da. Izan ere, gure legediak pixkanaka urratsak eman ditu, zenbait neurri ezarriz, lan arloan emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko, baina ahaleginak eta aurrerapenak goresgarriak izan badira ere, oraindik bide luzea daukagu egiteko, aipatu besterik egin ez dugun helburua erdiesteko.

Errealitate hori ikusita, Edurne López Rubia irakasleak eta biok Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko *Berdintasunerako Zuzendaritzari* laguntza eskatzea erabaki genuen, kezka handia sorrarazten ziguten eta diguten alderdi horiei buruzko jardunaldi bat antolatzeko asmoz. «*Berdintasuna eta diskriminaziorik eza lan harremanetan, generoa dela medio*» gaiari buruzko jardunaldia Leioako Lan Harremanen Unibertsitate Eskolan egin genuen, 2011ko azaroaren 3an. Jardunaldi hura har dezakegu orain gaiarekin lotutako azterlan multzo gisa aurkezten dugun lan honen jatorritzat. Halaber, jardunaldi hori Unibertsitateak berak finantzatutako ikerketa-proiektu baten emaitza ere izan zen [UPV/EHU 46/09]. Fotinopoulou irakaslea proiektuko ikertzaile nagusia zen. Bertan, gai horiek eztabaidatu ziren, besteak beste.

Azterlan horiek oinarri duten errealitatea aintzat hartuta, hitzaldi batzuk antolatu ziren —aurretik aipatu bezala—, eta hiru irakasle adituren hitzaldiak entzuteko aukera izan genuen. Magdalena Nogueira Guastavino irakasleak (MUAko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko katedraduna) gai honi buruzko azalpen orokorra egin zuen: «Berdintasuna eta sexuagatiko diskriminaziorik eza lan-harremanetan. Ikuspegi konstituzionala». Gero, Amparo Ballester Pastor irakasleak (VUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko katedraduna) eta Jaime Cabeza Pereiro irakasleak (Vigoiko Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko katedraduna) aurkeztu zituzten beren hitzaldiak, «Gizon eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna lan-harremanen esparruan» eta «Sexuagatiko ordainsari-

diskriminazioa diskriminazio sistematikoko paradigma gisa», hurrenez hurren.

Hitzaldietako parte-hartzaileen lanekin batera, beste zenbait egileren lanak ere argitaratu ditugu ikerlan honetan; egile horietako bakoitza aditua da zehazki aztertu duen gaian. Hala bada, Jaengo Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko unibertsitate-irakasle titularra den Olimpia Molina Hermsilla andrearen parte-hartzea nabarmendu behar dut, lehenik; «Genero Berdintasunaren ohiko trataera krisi ekonomikoko testuinguruan» gaia landu du bere lanean. Bestalde, Teresa Pérez del Río andreak, Cadizeko Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko katedraduna eta gaian aditua denak, gai hau landu du bere lanean: «Genero-indarkeria lanean, segurtasun fisiko eta psikikoaren eskubidearen urraketa gisa, eta haren prebentzioa. Lan-munduko ordezkarien eginkizuna». Nora Martínez Yáñez Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle doktore kontratudunak gai hori bera aztertu du segurtasunaren eta osasunaren ikuspegitik, «Segurtasunaren eta osasunaren esparruko generoagatiko berdintasunari buruzko gogoeta batzuk» izeneko lanean. Monografiko hau ixteko, gizarte-segurantzaren ikuspegitik eta tutoretzako nahiz eskumeneko ikuspegitik aztertu dugu lan-harremanetako berdintasuna eta sexuagatiko diskriminaziorik eza. Gai horiek Vicente Palacio irakasleak (Castellóko Jaime I Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko katedraduna) eta Lousada Arochena magistratuak landu dituzte, lan banatan: «Emakumeen berdintasun materialaren bila: berdintasun formala eta ekintza positiboko neurriak gizarte-segurantzaren arloan» eta «Sexuen arteko berdintasunaren babes juridikozional eraginkorreko klausulak gizarte-jurisdikzioa arautzen duen Legean».

Ez nuke monografiko honen aurkezpena amaitutzat eman nahi eskerretarako tarte labur bat hartu gabe. Lehenik, eskerrak eman nahi dizkiet UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzari, Unibertsitateko Ikerketako Errektor-reordetzari eta Leioako Lan Harremanen Unibertsitate Eskolari, haien laguntza ekonomiko eta logistikorik gabe ezin izango baikenuen aurretik aipatutako jardunaldi hori antolatu. Bigarrenik, *Lan Harremanak* aldizkariaren Zuzendaritzari eta Erredakzio Kontseiluari eskertu nahi diet monografiko honen koordinazioa jardunaldi horren zuzendarion esku utzi izana. Azkenik, eta ezinbestean, eskerrak eman nahi dizkiet, bereziki, lanen egileei, haiek egiteko proposamena onartu zutelako, eta aipatutako jardunaldi horretan parte hartu zutenei, egingdako ekarpenei esker amaierako emaitza aberastu zutelako. Emaitzak ohiko irakurleentzat interesgarriak eta probetxugarriak izatea espero dut.

Donostian, 2012ko otsailaren 6an

OLGA FOTINOPOULOU BASURKO

Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Unibertsitate Irakasle Titularra
Gasteizko Enpresa Ikasketen UE
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea